

II. BLOKEA

Sareak antisozialak al dira?



Etapia: 16 - 20+ urte artean, Oinarrizko LHrako.



Zailtasun-maila: oinarrizkoa edo ertaina



2 kide



Denboralizazioa: 8 saio



Etiketak: zibersegurtasuna (eSafety), Internet, sare sozialak

Jardueraren deskripzioa: (4 lerro gehienez)

Ikasleek, bideoak ikusiz, sare sozialen arrisku eta mehatxuak ikertuko dituzte, eta oharkabean nola eragiten dieten ikasiko dute. Ondoren, audioak grabatuko dituzte eta, haietan, bideoetan hautatu duten informazioaren berri emango dute; TwinSpace-n partekatuko dituzte, eta elkarri iruzkinak egingo dizkiote. Azkenik, sormena erabili eta zibersegurtasunari buruzko esloganak diseinatuko dituzte, Interneten eta sare sozialen arriskuak minimizatzeko aholkuak emango dituztenak.

Helburuak: (3 gehienez)

1. Ikasleei sare sozialen erabileraz jabetzearen garrantzia hurbiltzea.
2. Eguneroko bizitzako egoerak eta Interneten erabilera aztertzea eta alderatzea, eta seguru edo ez-seguru gisa identifikatzea.
3. Sormena eta elkarlana sustatzea.

Gako gaitasunak eta zeharkako gaiak:

- Gaitasun sozial eta zibikoak.
- Gaitasun digitala.
- Hizkuntza-gaitasuna.
- Ikasten ikastea.
- Komunikabideetarako heziketa.

Curriculumeko edukiak:

- IKTak eraginkortasunez eta arduraz erabiltzea informazioa bilatzeko eta ekoiztutako aurkezteko.
- Herritar digital arduratsuak.
- Atzerriko hizkuntzan hizkuntza-gaitasuna landu eta hobetzea.

Inklusio-alderdiak: Zailtasunak dituzten ikasleek idatzizko testua errazago uler dezaten, dozentek bideoen transkripzioak ama-hizkuntzan eskainiko dizkiete. Elkarlanean, sortzeko askatasuna eta lankideen lanarekiko errespetua sustatzen dira.

Aurreikusitako produktuak/ emaitzak:

- Irudidun audio-aurkezpenak, gida-galdera batzuei erantzunez eta hautatutako bideo batzuetako informazioa erabiliz.
- Interneteko eta sare sozialetako arriskuak ekidin edo minimizatzeko aholkuak dituzten esloganak.

Jardueraren garapena



Prestatzea

1. urratsa

Irakasleak ikasgelan eztabaidatzeko gai batzuk planteatuz hasiko du saioa: "Zer gustatzen zaizu gehien sare sozialetatik? Zer da okerrera sare sozialetan? Zer aplikazio erabiltzen dituzu? Zergatik erabiltzen dituzu? Erakutsiko didazu nola funtzionatzen duen? Norekin hitz egiten duzu gehien sare sozialetan? Inork eskatu al dizu inoiz zu agertzen zaren argazki desegokirik bidaltzeko?"

Ondoren, irakasleak bideo batzuk eta informazioa biltzen duen webgune bat aurkeztuko dizkie ikasleei, ingelesez. Zailtasunak dituzten ikasleentzat, ama-hizkuntzan transkribatutako testu bat banatuko du. Ikasleak taldeka edo bikoteka elkartuko dira, emandako informazioa aztertzeko eta horri buruz hausnartzeko, eta gehien hunkitu dituen edo eragin diena ateratzeko. Irakasleak zailtasunak izan ditzaketen ikasleak kontuan hartuta egingo du taldekatzea, eta lagun diezaieketen ikaskideekin jarriko ditu.



1. irudia



TEDxTalks: [Is social media hurting your mental health?](#) (Sare sozialek zure osasun-mentala kalte egiten ari al diote?)

<https://youtu.be/Czg_9C7gw0>



[5 Crazy Ways Social Media Is Changing Your Brain](#) (Sare sozialak zure garuna aldatzen ari diren 5 modu harrigarri)

<https://youtu.be/HffWFd_6bJ0>



[The dangers of social media for teens](#) (Sare sozialek nerabeentzat dituzten arriskuak) <<https://www.outbacktreatment.com/the-dangers-of-social-media-for-teens/>>

2. urratsa

Irakasleak profil bat sortuko dio ikasle bakoitzari TwinSpace-n.

Tutoriala: [Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra.](#)



<<http://etwinning.es/es/como-invitar-a-los-alumnos-al-twinspace/>>

3. urratsa

Irakasle-koordinatzaileak orri bat sortuko du TwinSpace-n *Interactive conversations about cibersecurity* izenburupean, eta TwinBoard bat gehituko du ikasleek Voicethread edo antzeko tresna batekin egingo dituzten audio/bideo grabazioak erakusteko.



[Nola sortu orri bat TwinSpace-n](#)

<<http://etwinning.es/en/nuevo-twinspace-como-crear-una-pagina-de-actividades>>



[Nola sortu TwinBoard bat](#) (bideoaren 2. zatia)

<<https://youtu.be/Ao5ZYV0A8Mo>>

4. urratsa

Ikasleek 20 segundo inguruko audio batean haien ahotsa grabatuko dute Voicethread edo antzeko tresna batekin, eta honako galderei erantzungo diete: "*Why do we have to protect ourselves on the Internet?*" "*What are the risks of the social media?*" (Zergatik babestu behar dugu geure burua Interneten? Zeintzuk dira sare sozialen arriskuak?). Grabazioarekin batera hiruzpalau irudi erabili behar dituzte.


Produktua bideo bat da, talde bateko irakasle bakoitzak 3. urratsean sortutako TwinSpace orrialdera igo beharko duena.

TwinSpace

1 [TwinSpace-rako esteka](#)

5. urratsa

Ikasle bakoitzak bideo guztiak ikusi behar ditu eta Voicethread tresna erabiliz gutxienez ikastetxe kideko ikasleen lau bideo komentatu behar ditu (tresna horrek ikaskideek egindako lanari iruzkinak atxikitzeko aukera ematen du). Irakasleek parte hartu duten ikasleak identifikatuko dituzte, haien inzialak eta izena pantailaren ezkerrean agertuko direlako.



2. irudia

6. urratsa

Irakasleek esloganen lehiaketa bat antolatuko dute, Internetek eta, bereziki, sare sozialek eta Interneteko segurtasunak sor ditzaketen arazoen aurrean nola jokatu jakiteko aholkuak emango dituztenak. Ikasleek eslogan bana prestatuko dute aplikazio hauetako batekin edo antzeko beste batekin:



Canva <<https://www.canva.com/>>



Postermymwall <<https://es.postermywall.com>>



Adobespark <<https://www.adobe.com/es/express/>>



Blocposter <<https://www.blockposters.com>>



Buncee. <<https://app.edu.buncee.com>>



Genially <<https://www.genial.ly/es>>

7. urratsa

Proiektuko irakasleetako batek *Slogan Contest* izeneko orri bat sortuko du, eta TwinBoard horma birtual bat gehituko du, ikasleek beren esloganak partekatzeko.



2

Pages

- BRAIN STORMING OF IDEAS and PROJECT PLANS
- WELCOME TO OUR PROJECT
- eSAFETY , DATA PROTECTION and PROJECT RULES
- COPYRIGHT and COPYRIGHT INFRINGEMENT
- Web 2.0 TOOLS
- DISTRIBUTION OF THE TASKS
- LETS KNOW PROJECT TEACHERS
- CETIFICATES OF THE PROJECT'S TEACHERS
- WATSUP GROUP LINK FOR THE

SLOGAN CONTEST

PLEASE UPLOAD YOUR SCHOOL'S BEST SLOGAN

TwinSpace 2

8. urratsa

Ikastetxe bakoitzeko irakasleak bere ikastaldeko eslogan guztiak igoko ditu Tricider edo antzeko tresna baten orrialdera (kide gehiago izanez gero, Tricider-en zenbat eskolek parte hartuko duten, hainbat orri sortuko dira). Ikasleek gehien gustatu zaien ikastalde-kidearen eslogana bozkatuko dute. Eskola bakoitzeko bost esloganik onenak aukeratuko dira.



Tricider <<https://www.tricider.com/>>







Tutoriala: [Tricider](https://youtu.be/_1lsBEp5dPg) <https://youtu.be/_1lsBEp5dPg>



3 [TwinSpace-rako esteka](#)

Do you like my slogan?

14 days left

 <p>3CE-5 by Aclaramuntb</p>	<ul style="list-style-type: none"> + It is the best slogan by Erikadiazmunoz (2 likes) + este eslogan es el mejor by Laurapalomares02 (2 likes) + this is the best slogan by borja diaz (1 like) 	<p>14 abraham, Albdom170703, tavinhoandrade and 11 more</p>
 <p>3AB-1 by Aclaramuntb</p>		<p>11 Nicola Soggia, crescenio manuel, andrea masola and 8 more</p>
 <p>PMAR-3 by Aclaramuntb</p>	<ul style="list-style-type: none"> + I like this slogan + cool 	<p>10 abraham, Albdom170703, santiago and 7 more</p>
		<p>9 abraham, Daniel, Robert and 6 more</p>

3. irudia

9. urratsa

Irakasleetako batek galdetegi bat prestatuko du Google Forms-en edo antzeko beste aplikazio batean. Bertan, eskola bakoitzean Tricider-en hobekien baloratutako bost esloganak erakutsiko ditu, eta esloganen lehiaketaren orrian bertan, *Slogan Contest*, txertatuko duen esteka baten bidez sarbide emango du.


GET YOUR SKILLED AND PREVENT CYBER BULLYING PROJECTS SLOGAN CONTEST

WHICH ONE IS THE BEST SLOGAN ABOUT CYBER SECURITY?

* Required

Email *


Your email



4. irudia

10. urratsa

Parte hartu duten dozentek eta ikasle guztiek bozkatu ondoren, TwinSpace-ko orrialdeko TwinBoard horma birtualean inkestaren emaitzak erakutsiko dira, egindako lanaren frogak uzteko.



TwinSpace 4

11. urratsa

Eslogan irabazlearen berri emango da ikastetxe bakoitzeko atondoko iragarkitaulan, web orri instituzionalean eta sare sozialetan.

Halaber, orri-markatzaileak, eranskailuak edo bestelakoak egin daitezke eslogan irabazlearekin, eta hezkuntza-komunitatean banatu.

TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:

TwinSpace: TwinBoard



Beste tresna batzuk:

[Canva](#)

[Postermywall](#)

[Adobespark](#)

[Blocposter](#)

[Buncee](#)

[Genially](#)

[Tricider](#)

[Google Forms](#)